

NAFARROAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIA



2021-2027 EGUNERATZEA



S4 | Navarra
Nafarroa

Estrategia de Desarrollo | Garapen Estrategia

The image features a white background with several abstract, colorful lines. A red line starts from the top left, goes right, then down, then right again, and finally down. A green line starts from the top center, goes right, then down, then right. A blue line starts from the bottom center, goes left, then down, then right. A large, light gray circle is centered in the middle of the page. The text 'Aur ki bidea' is written in a bold, black, sans-serif font, centered within the circle.

**Aur
ki
bidea**

# Aurkezpena	2
1 Sarrera eta testuingurua	4
1.1 Hitzaurrea: S3tik S4ra	5
1.2 Europako testuinguru berria	7
Aurrekontu-esparrua eta gaitzen duten irizpideak 2021-2027	7
Europako itun Berdea (<i>Green Deal</i>) eta jardueren sailkapena	8
2 Eskualdearen diagnostikoa	9
2.1 Azken emaitzak	11
2.2 Tarteko jarduna	12
2.3 Lehiakortasunaren faktore erabakigarriak	13
2.4 Sektoreen espezializazioa eta bilakaera	15
2.5 Indarguneen eta ahulezien azterketa, eta gomendioak	18
3 S4 estrategia	23
3.1 S4ren ikuspegi estrategikoa	24
3.2 S4ren lehentasun tematikoa	25
Mugikortasun elektrikoa eta konektatua	27
Elikadura osasungarria eta jasangarria	28
Energia berdearen industria	29
Medikuntza pertsonalizatua	30
Turismo jasangarria	31
Ikus-entzunezko industria	32
Trantsizio ekologikoa	34
Trantsizio digitala	36
4 Lehiakortasun faktoreak	39
4.1 Zeharkako planak	40
4.2 Bideratutako planak	45
5 Gobernantza, inplementazioa eta monitorizazioa	46
5.1 Gobernantza. S4 erakunde arduraduna	47
5.2 S4ren erronken araberako ezarpena	49
5.3 Monitarizazioa	50
Tresnak	50
Gardentasuna eta ebaluazioa	53
6 Baldintza mesedegarria betetzea	54
7 Eranskinak: S4 lehentasunen fitxak	56

Aurkezpena

Askotan esaten da inork ez duela ikasten historiak ematen dituen irakaspenetatik. Nire jarrera beste bat da, benetan uste dut denok ikasten dugula esperientzia kolektiboetatik. Horrela, COVID-19aren esperientziak zenbait irakaspen eman dizkigu.

Ikasitako lehen ikasgaia **arlo publikoaren berpiztea da, arlo pribatuarekiko elkarrizketatik abiatuta, oparotasun kolektiboa garatzeko funtsezko faktorea baita**. Testuinguru horretan, garrantzia eta esanahia hartu dute plangintza-, egikaritze-, garapen- eta ebaluazio-tresna publikoek.

Beste irakaspen bat da **Nafarroa ez dagoela nazioarteko dinamika handietatik eta eraldaketa handietatik kanpo**. Izan ere, Garapen Jasangarrirako Helburuak dira Nazioarteko Komunitate osoak onartutako lehen agenda globala, eta Nafarroako Gobernua konprometituta dago agenda horrekin.

Bestalde, **aldaketaren palanka nagusia talentua da, hau da, ezagutzaren balorizazioa**. Badira erronkak berdintasunarekin lotura dutenak edo deskarbonizazioarekin zein osasunarekin... badira erronka demografikoak, digitalak... Horiek guztiak jakinduriaz konpondu behar dira, eta horrek zentzuzko ezagutza etikoa eskatzen du. Teknika ez da nahikoa; zintzotasunaren zerbitzura egon behar du adimenak.

Ikasitako beste lezio bat da **gizarte zibilak duen indarra eta gizarte zibilak guztion aferetan parte har dezan dagoen premia**. Kontua ez da herritarren parte-hartzerako sare formal bat eraikitzea; kontua da erakundeak gizarte-eragileen, enpresen, erabiltzaileen eta, oro har, herritarren arteko fluxu eta trukeetan inplikatzeko. Horregatik, azken Enplegu Plana eta Gizarte Ekonomiaren Plan Integrala bi jardunbide egoki izan dira Europar Batasunak bultzatzen duen gobernantza eredu horretan.

Nafarroan, **Suspertu Plana eraiki genuen, Next Generation-en erronkari aurre egiteko beharrezko aurrerakin gisa**. Europako erronka nagusiak bere gain hartzen zituen planak. Besteak beste, Europako Itun Berdea, zeinaren helburua den EB gizarte zuzen eta oparoa bihurtzea, ekonomia modernoa, eraginkorra baliabideen erabileran eta lehiakorra izan dena.

Aurretik azaldutakoarekin bat etorriz, S4 sistema sortu da, S3aren eta aurreko Moderna Planaren jarraipen gisa. **Nafarroak 15 urte baino gehiago daramatza espezializazio adimentsurako ikerketa- eta berrikuntza-estrategiak diseinatzen Europar Batasunarekin batera, lehenetan**, erronka eta beharretan oinarrituta. Lehiatzeko ditugun abantailak baliatuz eta gizarte tartean sartuz. Hori guztia gainbegiratzeko eta ebaluazio-sistema sendoetatik; izan ere, kanpoko ebaluazioek berresten dute egungo S3an abiatuta egin dena koherentea zela Europako Batzordearen gomendioekin, eta haren eraginak oso positiboak direla.

Gaur egungo NAFARROA S4 Espezializazio Adimentsurako Estrategiak oparotasunerako eta bizi-kaliterako agenda bat ezartzen du:

► Konpromiso-helburu zehatzak sartu dira emisioak eta hondakinak murrizteko, deskarbonizatzeko eta energia-efizientziarako, **hazkunde jasangarria** lortzeko bidean.

► Gogoeta estrategikoaren bidez, **trantsizio industrialaren eta teknologikoaren ibilbide-orria** diseinatu nahi da, errorika handien aurrean (trantsizio ekologikoa eta trantsizio digitala) sortzen diren aukerak aprobetxatzeko; izan ere, horiek aldaketa handiak dakartzate ekoizpen-sistemetan, kontsumitzaileen sistemetan eta merkatuen sistemetan, eta aldaketa horien gizarte-inpaktua minimizatzea dakarte (bidezko trantsizioa).

► **ETEn parte-hartzeak garrantzia hartzen du trantsizio horretan.** Ezagutza sortzea (I+G+B) eta merkatu ikuspegiarekin egitea da helburua, ETEek ezagutza hori xurgatzeko eta produktu eta zerbitzu berrietara bideratzeko duten gaitasuna handituz. Europako 21-27rako aurrekontu-esparru berriak berriaz eskatzen du **enpresa-aukera berriak bilatzea**. Horretarako, merkatu bakoitzaren etorkizuneko erronkei buruz eta industriak nitxo errentagarriago eta jasangarriagoetarantz dibertsifikatzeko aukerei buruz hausnartzeko guneak sortzen ditugu.

► **Trebetasunetan prestatzea eta kalitatezko enplegua** oinarritzeko alderdia dira bidezko trantsizio industrialerako, automatizazioaren eta teknologia berriak sartzearen ondorioz enpleguan gertatzen diren aldaketen aurrean lan-indarra prestatuz. Horretarako, hainbat helburu biltzen dira, hala nola langabezia murriztea, LH sustatzea, hezkuntza goiz uztea eta gazteen langabezia saihestea (lan egiten edo ikasten ez duten gazteak), eta etengabeko prestakuntza sustatzea.

► Azkenik, **Nafarroa nazioartean zabaltzea** eta eskualdeko ekosistema osagarrien arteko lankidetzak bultzatuko da, enpresen gaitasunak indartzeko eta inbertsio osagarriak bilatzeko.

Azken batean, Nafarroa, Europa mailan eta gure estatu-esparruaren barruan, etorkizuna egunez egun eraikitzen ari da, bere esperientziatik eta bere ikuspegi prospektibotik abiatuta. Gobernuak, erakunde gisa, gure gizartearen kristalizazioa baino ez da. Guztion artean aurrera egiten dugu oparotasun kolektiboaren erronkaren azpian dagoen eraldaketa-testuinguru batean. Bizi-kalitatea gure marka da, gure estandartea.



María Chivite

Nafarroako lehendakaria



SARRERA ETA TESTUINGURUA

1.1

Hitzaurrea: S3tik S4ra

Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak (S3 deituak, “Smart Specialisation Strategies” ingelesezko siglengatik) garapen ekonomikorako eredu bat dira. Eredu horretan aztertzen da zein arlo ekonomikotan dituzten eskualdeek lehiakortasun abantaila esanguratsuak, baliabideak haietan kontzentratzeko. Horretarako, S3k lehen tasun batzuk definitzen ditu, eskualdearen potentzial ekonomikoa eta zientifiko-teknologikoa kontuan hartuta; eta lehen tasun horietara bideratutako politika adimentsuak erabiltzea proposatzen du, eskualde-garapenaren potentziala maximizatzeko, ezagutzan oinarritutako ekonomia baterantz aurrera eginez.

Espezializazio adimentsuaren estrategiek **Europa osoko berrikuntza- eta lehiakortasun-politiken bilakaera** ekarri zuten, eta Europar Batasunaren kohesio-politikaren funtsezko zati izan dira, aurreko programazio-aldian (2014-2021) hasita.

S3ak, lurralde bakoitzaren berezitasunera egokituz, gako nagusi batzuetan oinarritzen dira:

S3

Gobernantza publiko-pribatua eta sustatzea enpresen parte-hartzea

Berrikuntza-arloei lehen tasuna ematea, eskualdeko indarren arabera


Inplementazioa laguntzeko tresna publiko espezifikoak

Inpaktua monitorizatzekeo sistemak

2021 – 2027 aurrekontu-esparru **berriak bilakaera ekarri du S3 estrategietan**. Bilakaera hori aregotu da COVID ondoko fase berrian, industria-trantsizioaren kontzeptuarekin lotuta. Hots, ekonomien eraldaketa, trantsizio digitalaren eta jasangarriaren eraginez. Bilakaera horrek zerikusia du, halaber, **Europako** estrategien anbizio handiagoarekin, hala nola Horizonte Europarekin (lankidetzak eta xedeak), Itun Berdearekin, Agenda Digitalarekin eta Industria Estrategia Berriarekin, eta, horren ondorioz, “Next Generation EU” programa onartzearekin.

Taulan ikus daitekeenez, espezializazio-estrategia adimentsuak tresna egokia dira aipatutako **helburu global eta kontinental handiak eskualde- eta toki-mailan zehazteko**, interes-taldeek erronka zehatzen eta proiektu erakusleen inguruan egiten dituzten ekarpenak koordinatuz.

Hala, zenbait eskualdek beren estrategiari laugarren “S” bat gehitu diote, jasangarritasuna (Sustainability). **Jasangarritasunerako espezializazio adimentsuaren estrategien (S4)** helburua jasangarritasuna hobetzea da, berrikuntzaren bidez, klima-aldaketaren aurkako borrokaren helburuekin koherentea den berreskuratze jasangarria bilatuz. Beraz, pandemia ondoko ekonomiara egokitzeko tresna dira, enpresen egokitzapena erraztuz eta agertoki berri honetan irekitzen diren aukerak aprobetxatuz. Horrela, Europa **2050ean klimaren aldetik neutroa den lehen kontinentea** izateko helburua lortzen lagundu nahi dute.



S4 aukera borondatezkoa den arren, Nafarroak bere estrategia aldatzea erabaki du, jasangarritasuna lan-ildo guztietan eta lurraldearen azken helburu gisa integratuz. S4 estrategia eskualdeko ekonomia eraldatzeko agenda bat da, **Nafarroa hazkunde jasangarriaren erreferente izan dadin European**. Horrek lotura du joera globalekin eta estrategia kontinentalekin ez

ezik, trantsizio jasangarriaren funtsezko arloetan (mugikortasuna, energia edo elikadura) Nafarroak dituen indargune eta gaitasunekin ere.

S4ranzko aldaketa, S3ren lan-oinarriari eutsiz, sei gako berritan zehazten da:

6 GAKO

Berrikuntzaren **noranzkotasuna** eta lehiakortasuna hazkunde iraunkorrera bidean; zenbat berritzen den ez ezik, zertarako edo norantz ere aintzat hartzea

Xedeka lan egitea: helburu bererantz aurrera egiteko aukera ematen duten proiektu osagarrien multzoa, hurbilketa desberdinak konbinatuta

Eragin sistemikoa: politikak eta baliabideak koordinatzea, ekosistemak nahi den ildoa eraldatzeko

Balio-kate berriak: trantsizio ekologikoak eta digitalak sortutako nazioarteko nitxo berrietan enpresak posizionatzen laguntzea

Tokiko esperimentazioa: pilotajerako eta esperimentaziorako esparru bideratzaileak sortzea (pizgarriak, araudia, living labs, erosketa publiko berritzailea, ideia-lehiaketak ...).

Europako sareak: parte hartzea lankidetzarako, ikaskuntzarako eta enpresa-aukerak sortzeko Europako sare eta plataforma tematikoetan.

Enpresak, ikerketa-taldeak, teknologia-zentroak, **startup**ak, garapen- eta gobernu-agentziak ikuspegi partekatu horren inguruan elkarlanean aritzeak ahalbidetuko du Nafarroa kokatzea

hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailearen bide egokian eta aukerak irekitzea belaunaldi berriek eskatzen duten etorkizun horretarako.

1.2

Europako testuinguru berria

S4 estrategia berria definitzerakoan, jarraitu zaie egitura-funtsetarako programa operatiboan erregulaziotik eratorritako eskakizunei, baita Europako Itun Berdetik eratorritakoei ere.

1.2.1 Aurrekontu-esparrua eta gaitzen duten irizpideak 2021-2027

Europako Batzordearen 2021-2027 aurrekontu-aldiak **zenbait urtetarako finantzaketa-esparru** berri bat ekarri du berekin, funts komunitarioen bitartez, bost helburu nagusitan zentratua: (1) Europa adimentsuagoa, berritzaileagoa eta digitalizatuagoa, (2) ekologikoagoa eta karbonorik gabea, (3) konektatuagoa, (4) sozialagoa eta (5) herritarrengandik gertuago dagoena, eskualdeko eta tokiko ikuspegiaren bidez.

Europar Batasunak zenbait baldintza zehazten ditu 2021-2027 aldian eskatzen ahalko diren eskualde-funtsak jasotzeko. Aipatutako 1. helburuari dagokionez, baldintza mesedegarri gisa eskatzen da **espezializazio adimentsuaren eskualde-estrategiaren gobernantza ona**. Estrategia hori balioesteko, baldintza betetzen dela ziurtatzen duten 7 irizpide hartu behar dira kontuan bereziki. Irizpide horiek oso-osorik eta etengabe bete behar dira Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (EGEF) lotutako diru-itzulketak lortzeko. Programa horrek egituratzen du Batasunaren laguntza eskualdeen garapen ekonomikorako:

IRIZPIDEAK

- | | |
|--|---|
| 1 Berrikuntza eta digitalizazioa hedatzeko itoguneak aztertzea | 4 Enpresa-aukerak aurkitzeko prozesuaren funtzionamendua |
| 2 Espezializazio adimentsuaren estrategiaz arduratzen den erakundea | 5 Ikerketa- eta berrikuntza-sistema hobetzea |
| 3 Jarraipen- eta ebaluazio-tresnak | 6 Industria-trantsizioarako ekintzak |
| | 7 Nazioarteko lankidetzarako neurriak |

Dokumentu honek Nafarroak izaera lagungarriaren zazpi irizpideak betetzeko dituen bideak azaltzen ditu.

1.2.2 Europako Itun Berdea (Green Deal) eta jardueren sailkapena:

Europako Itun Berdea Europar Batasunerako hazkunde-estrategia bat da. Helburu nagusia da Europa kokatzea klimaren aldetik neutroa, bidezkoa eta oparoa den gizarte batera eraldatze bidean, baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen ekonomia moderno eta lehiakorrekin.

Europako Itun Berdeari buruzko Batzordearen komunikazioetan, berretsi egiten da Europar Batasunak klima-aldaketaren aurkako munduko borrokan aitzindari izateko duen erabakia, hemendik 2050era bitartean klimaren neutraltasuna lortzeko¹.

Ildo horretan, konpromiso bat dago, Europar Batasunaren politika guztiek Itun Berdean adostutako klima-neutraltasunaren helburuak lortzen lagun dezaten. Ekimen horiek hainbat eremu hartzen dituzte barne, hala nola klima (klimari buruzko Europako legea), ingurumena (biodibertsitateari buruzko estrategia), energia (energia garbia, eskuragarria eta segurua), garraioa (mugikortasun jasangarria eta adimentsua), industria (Europako industria-estrategia), nekazaritza (baserritik mahairako estrategia) eta finantza jasangarriak (ekonomia zirkularrerako ekintza-plana).

Era berean, klima-neutraltasunaren helburuarekin lotuta dauden egungo politikak ere berrikusiko dira, hala nola, berotegi-efektuko gasen emisioei, energia berriztagarriei eta energia-eraginkortasunari buruz indarrean dagoen legeria.

Gainera, Europar Batasunak tresna bat garatu du, Europako taxonomia², hain zuzen ere, jarduera ekonomikoak iraunkortzat sailkatzea errazten duena. Zerrenda horri esker, eragileek jakin dezakete, inpartzialtasunez, jardueraren batek Europako jasangarritasun-helburuetan laguntzen duen.

Europako taxonomia sei helburutan eta lau baldintzatan oinarritzen da. Hona hemen sei ingurumen-helburuak:

1. Klima-aldaketa arintzea
2. Klima-aldaketara moldatzea
3. Uraren eta itsas baliabideen iraunkortasuna eta babesa
4. Ekonomia zirkularrerako trantsizioa
5. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola
6. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea

Jarduera ekonomiko bat taxonomiarekin lerrokatuta egoteko, lau **baldintza** bete behar ditu:


1. Lehen zerrendatutako sei ingurumen-helburuetatik bati edo gehiagori nabarmen laguntzea.
2. Beste helburuetako bati ere kalterik egiten ez diola frogatzea ("do no significant harm" gisa ezagutzen da)
3. Giza eskubideei buruzko arau jakin batzuetan oinarritutako gutxieneko babes batzuk betetzea eta
4. Hautaketa Irizpide Teknikoak betetzea³, horiek baitira aurreko bi puntuetarako zehaztutako baldintzak.

S4 estrategia berriak trantsizio ekologikoko ildoak ematen ditu, erregulazio horrekin bat etorritz, eta aukera ematen du Nafarroako lehenatasunezko arloetan landu beharreko enpresa-erronkak eta -aukerak ezagutzeko.

¹ Europako Itun Berdea, EBren helburua: klima-neutraltasuna, gaurtik 2050era <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/green-deal/>

² https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/banking-and-finance/sustainable-finance/eu-taxonomy-sustainable-activities_en

³ Hautaketa irizpide teknikoaren onarpena atzeratuta dago.





2

**ESKUALDEAREN
DIAGNOSTIKOA**

Lurralde baten lehiakortasuna ezin da, berez, termino absolututan neurtu. Une jakin batean zenbateraino garen lehiakorrak eta lehiakortasun hori nola joan den aldatzen baloratzeko nahitaez beste batzuekin alderatuta egin behar da. Gure indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko eskualdeko estrategia eta, bereziki, lan-ildoak definitzen laguntzen du.

Horregatik aurkezten da, hain zuzen ere, gure inguruko lurralde konparagarriekiko **2014-2019 aldian Nafarroak duen lehiakortasunaren azterketa**. Horrela, aztertutako adierazle bakoitzak Eurostaten eskuragarri dagoen Nafarroako azken datua du, EBko batez bestekoarekin alderatuta, bai eta 16 eskualdeen batez bestekoa ere (erreferentziako eskualdeak, Nafarroarekin duten antzekotasunagatik), eta, gainera, Espainia, Alemania eta Txekiako datuak ematen dira, alderatzeko hiru herrialde

garrantzitsuenak diren aldetik. Azkenik, "semaforo" bat gehitu da. Bertan, Nafarroak Europako 218 eskualdeen, erreferentziako 16 eskualdeen eta Espainiako 17 autonomia-erkidegoen artean duen posizioa ikusten da, baita epealdiko bilakaera ere (postuen igoera edo jaitsiera). (4)

Analisia hiru adierazle-motatan egituratuta dago, Orkestraren sailkapenaren arabera:

2.1 Azken emaitzak


Eskualdeko strategiaren azken helburuak jasotzen dituztenak, hazkundeari eta ongizateari dagokienez.

2.2 Jarduera ertainaren emaitzak

Eskualdean lortu nahi diren azken helburuak ez izan arren, azken emaitza horiek lortzen laguntzen duten helburuak.

2.3 Lehiakortasun determinatzaileak

Goiko bi mailen emaitzei eragiten dieten elementuak. Maila hau bereziki da garrantzitsua, hemen politika publikoen eragina argiagoa izan baitaiteke.



Ondoren (2.4 atala), lurraldearen espezializazio ekonomikoa aztertuko da, gaitasun zientifiko-teknologikoak (ikerketen eta patenteen ekoizpena) eta komertzialak (esportazioa arlo ekonomikoen arabera) analizatuz.

Azkenik (2.5), indarguneak, ahuleziak eta gomendioak aztertu dira, estrategia formulatzeko.

4 Parentesi artean, aztertutako Europako 218 eskualdeen arteko posizioa deskribatzen da, eta, ondoren, posizioen hobekuntza edo beherkada. Adibidez, 43; +8 unitateak esan nahi du Europako 218 eskualdeen 43. posizioan egotea eta azken 4 urteetan 8 postu igo izana. Batzuetan, erreferentziako 15 eskualdeekiko posizioa eta bilakaera ere sartzen dira (eskualde horiek Nafarroaren antzeko egitura-baldintzak dituztelako hautatu dira). Adierazle bakoitzeko datu guztiak biltzen dituen taula dago.

2.1

Azken emaitzak

OPAROTASUNA Azken lau urteetan, Nafarroako Foru Komunitateak bere posizioa zertxobait hobetu du azken emaitzen adierazle gehienetan. Nabarmenezkoa da **biztanleko BPGren** hobekuntza (45; +3) eta, batez ere, etxeetako errenta erabilgarriarena per capita (43; + 8), ongizate-mailaren adierazle egokiagoa baita. Bi adierazleetan, posizio ertain-baxuetan dago erreferentziatzko eskualdeei dagokienez (9; +1) eta (9; 0).

GIZARTE ONGIZATEA Hala eta guztiz ere, Europako eskualdeekin alderatuta posizio okerragoetan jarraitzen du bi

adierazle sozialagotan: **iraupen luzeko langabezia** (123; +32) eta **lan egiten edo ikasten ez dutenen tasa** (87; +3). Europako eskualdeetan 32 postuko gorakada izan den arren, tarteko eta beheko posizioetan dago erreferentziatzko eskualdeekin alderatuta. Horrela, krisi ekonomikoak enpleguan izan zuen eragin handiagoa egiaztatzen da oraindik ere, Espainiako lan-merkatuan egiturazkoagoak diren baldintzatzaileez gain. Nolanahi ere, adierazle sozial gisa, Nafarroa nabarmetzen da **pobrezia-arriskuaren tasan** (12; +3), baita erreferentziatzko eskualdeekin alderatuta ere (3; -2).

EMAITZAK	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIATZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Adierazlea	2018	34.300	35.662	31.000	28.083	37.749	28.023	45	▲+3	9	▲+1	3	—
Per capita BPGa (EAP)	2017	18.900	19.008	16.773	15.739	21.466	12.766	43	▲+8	9	—+0	3	—
Etxeetako errenta erabilgarria per capita (EAP)	2019	2,2	1,9	2,5	5,3	1,2	0,6	123	▲+32	10	▲+3	1	—
Luzaroko langabezia (biztanleria aktiboaren gaineko %)	2019	8,5	7,7	10,1	12,2	5,7	5,7	87	▲+3	8	▲+1	2	—
Ez lanean ez ikasten ari ez direnen tasa (%)	2019	12,6	17,1	21,7	26,1	18,7	12,5	12	▲+3	3	▼-2	2	▼-1
Pobrezia-arriskuaren tasa (%)													



**Nafarroa,
Europako
50 eskualde
oparo eta
bidezkoenen
artean**

2.2

Tarteko jarduna

ENPLEGUA Enpleguari dagokionez, Nafarroak, Espainiako erkidegorik onena izan arren, Europako eskualdeen arteko tarteko posizioetan dago, eta erreferentziazko eskualdeekiko baxuetan, bai **langabezia-tasa**ri dagokionez (151; +18), bai **enplegu-tasari** dagokionez (121; 1). **Gazteen langabezia-tasan (156; +10)** adierazten du Nafarroak Europako eskualdeen aldean posizioerik

txarrena. Enplegu tasari dagokionez, hobekuntza tarte handia ikusten da, batez ere emakumeen kasuan, izan ere, Nafarroa Europako batez bestekoaren azpitik baitago (121; -3), emakumeen enplegu tasa denean biztanleko BPGren hazkunderako oinarritzko osagaietako bat⁵.


TARTEKO JARDUNA	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIAZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Enplegu-tasa	2019	68,0	71,2	69,2	63,3	76,7	75,1	121	▲+1	12	▲+1	5	▼-1
Emakumezkoen enplegu tasa	2019	63,6	66,8	64,0	57,9	72,8	68,0	121	▼-3	12	▲+2	5	—
Langabezia-tasa	2019	8,2	5,2	6,3	14,1	3,2	2,0	151	▲+18	14	—	1	—
Gazteen langabezia tasa	2019	22,9	13,6	14,4	32,5	5,8	5,6	156	▲+10	14	—	1	—

PRODUKTIBITATEA Europako rankingean oraindik aldeko posizioetan dagoen arren (43; -11), langile bakoitzeko itxurazko produktibitateak okerrera egin duela ikus daiteke, Nafarroa erreferentziazko eskualdeen artean batez besteko posizio baxuan baitago (9; -1). Galera hori gorabehera, produktibitate nominala etengabe hazi da 2008-2019 aldi osoan, eta 28en EBko, erreferentziazko eskualdeetako, Alemaniako edo Espainiako batez bestekoaren gainetik dago.

estrategiaren ondorioz. Aldiz, Nafarroaren gisan kostuetan lehiatzen diren ekonomiak, eusteko premian dira. Deigarria da, halaber, Eslovakiaren portaera ikustea, 12 urtean haren lan-kostu unitarioa bikoiztu baitu.

Lan-kostuak. Lan-kostuei buruzko txosten bereizian zabaldu egin da lan-kostu unitarioari buruzko informazioa (soldatapeko bakoitzeko kostuaren eta soldatapeko bakoitzeko produktibitatearen arteko zatidura), eta ondorioztatu da, batez ere manufaktura-sektorean, 2013-2019 aldiko **produktibitate errealaren** geldialdia gertatu dela (tasa erreal negatiboekin azken bi urteetan), eta **lan-kostu unitarioaren** hazkunde neurritzkoa gertatu dela, soldata-kostuek presio handiagoa izan dutelako krisitik irteteko. Nafarroak, azken hiru urteetan izandako igoera txikia gorabehera, alderatutako lau lurraldeetako (EB28, Espainia, Alemania eta Eslovakia) lan-kostu unitario onena du (soldaten eta produktibitatearen arteko erlazioa).

ESPORTAZIOAK Produktibitateari dagokionez, eta eskualdeko lehiakortasun-adierazle gisa, esan behar da Nafarroako esportazioek gehieneko historikoa lortu zutela 2019an, 2008koa baino %75 handiagoa. Nabarmenezkoa da azken bi urteetako (2018 eta 2019) ildo ona, 2011 eta 2017 artean nolabaiteko geldialdia izan ondoren.



⁵ Per capita BPG hazi egin daiteke, bai lan-merkatuan parte hartzen duen biztanleriaren hazkunderaren ondorioz, bai soldatapeko bakoitzaren batez besteko produktibitatearen hazkunderaren ondorioz.

I+G+Bko EMAITZAK Berrikuntza-emaizten adierazleei dagokienez (argitalpenak eta patenteak), lehiakorrek izateko hobetu beharreko adierazleak izanik, posizio altua ikusten da **argitalpenei** dagokienez (40; -1), baita erreferentziazko eskualdeen artean ere (7; 0), eta bereziki lehen mailako

argitalpenei dagokienez (19; +2) eta (3; 0); baina **patente-eskaeren** okerragotzea (77; -11) gertatu da, eta erreferentziazko eskualdeekin alderatuta (8; -1) ere postu jaitsiera izan da (2017ra arteko datuak).

TARTEKO JARDUNA	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIAZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Adierazlea													
Ixturazko produktibitatea langileko (EAP)	2018	72,6	71,9	66,5	66,3	69,8	54,9	43	▼-11	9	▼-1	3	—
PCT patenteak milioi biztanleko	2017	294,2	417,7	406,5	150,3	884,8	88,6	77	▼-11	8	▼-1	2	▼-1
Argitalpenak (WoS) milioi biztanleko	2019	3.660	3.273	2.222	2.655	2.564	2.513	40	▼-1	7	—	2	—
In Q1 argitalpenen %	2019	59,1	53,2	52,8	56,6	53,2	45,5	19	▲+2	3	—	1	▲+1

2.3

Lehiakortasunaren faktore erabakigarriak

BERRIKUNTZA PRIBATUA I+G+Bren eremuan, Nafarroa, oro har, nahiko positiboki kokatzen da berrikuntza-inputen adierazleetan (enpresen I+Gko gastua eta langileak) EB-28 osoarekiko (44; -13) eta (49; -5), hurrenez hurren, eta tarteko posizioetan eskualde konparagarriekiko (7; -2) eta (8; -2). Hala ere, 2017ra arteko datuekin, posizio-galera kezkarria ikusten da, jarraipen berezia egitea eskatzen duena. Nafarroako 2019ko I+G estatistikaren datuek berresten dute geldialdia egon dela BPGren gaineko inbertsio pribatuan.

BERRIKUNTZA PUBLIKOA Eremu publikoan, deigarria da Nafarroako gastuari eta langileei dagokienez duen posizio

desberdina EB-28 osoarekiko (76; -4) eta (33; -2) hurrenez hurren, eta bietan okerragotzea I+G pribatuarekiko izandakoa baino txikiagoa da. Nafarroako 2019ko I+G estatistikaren datuek berresten dute hobekuntza txiki bat izan dela BPGren gaineko inbertsio publikoan. BPGren gaineko I+Gko guztizko inbertsioak %1,7 inguruko geldialdia izan du; 2005eko maila da hori.

BANDA ZABALA Azkenik, eskariaren sofistikazio-mailari dagokionez, bilakaera positiboa ikusten da, bai banda zabalerako sarbidearen adierazleetan (75; +24), bai merkataritza elektronikoaren adierazleetan (85; 29). Erreferentziazko eskualdeekiko ere (4; +3) eta (9; +2) nabarmendu da Nafarroa.

LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK Enpresen portaera	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIAZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Adierazlea													
Enpresetako I+Gko langileak (enpleguaren %)	2017	0,9	0,9	0,8	0,5	1,0	0,8	44	▼-13	7	▼-2	2	—
Enpresen I+Gko gastua (BPGren %)	2017	1,2	1,3	1,4	0,7	2,1	1,1	49	▼-5	8	▼-2	2	—
PCT patenteak batera sortzea (4 urteko leihoa) [d] [patenteen guztizkoaren %]	2017	62,8	65,1	70,8	67,9	72,1	69,4	127	▲+25	10	▲+2	10	▲+2
PCT patenteen ehunekoa: Atzerriko lankidetzeta (4 urteko leihoa) [d] [patenteen guztizkoaren %]	2017	10,0	16,4	11,0	11,5	9,1	21,0	130	▲+39	12	—	8	▼-1



ESPEZIALIZAZIOA Eskualdeak espezializazio handia du teknologia altuko eta ertain-altuko **manufakturako enpleguan** (14; +3), eta lehen eskualdea da erreferentziako eskualdeekin alderatuta. Hala ere, **ezagutzako zerbitzu intentsiboetan**

duen posizioa (finantza-zerbitzuak, aseguruak, aholkularitza, zerbitzu teknologikoak edo ingeniartzak) ez da hain ona (162; -22), eta, gainera, bilakaera negatiboa izan du azken urteetan, posizioak galduta.

LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK Espezializazioa	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIAZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Adierazlea													
Enplegua goi mailako eta erdi-goi mailako teknologiko enpleguetan	2019	11,2	5,9	5,8	4,0	10,0	11,5	14	▲+3	1	▲+1	1	—
Enplegua ezagutzaren zerbitzu trinkoetan	2019	33,0	41,1	40,7	36,1	41,1	33,5	162	▼-22	14	▼-2	14	▼-3

PRESTAKUNTZA Biztanleriaren prestakuntza-mailari dagokionez, nabarmentzekoa da Foru Komunitateak posizio ona duela **hirugarren hezkuntzako** rankingetan (41; +7). Aldiz, posizio ertain-baxuetan dago, batez ere erreferentziako eskualdeekin alderatuta, beste adierazle batzuetan, hala nola **zientziako eta teknologiko** giza baliabideetan (120; +10) eta **hirugarren mailako edo goi-mailako bigarren hezkuntza duen 25-64 urte arteko biztanlerian** (160; +4). Hirugarren hezkuntzako adierazle onen ifrentzu gisa, esan behar da Nafarroak lurraldeetako **gainkualifikazio-indize** txarra duela

eta ia bikoiztu egiten dituela Txekiar Errepublika edo Alemania, EB28ko batez bestekoa eta erreferentziako eskualdeak, eta soilik EAEn azpitik.

Aipamen berezia merezi dute **Lanbide Heziketako ikasleen adierazleak (79; +63)** eta etengabeko prestakuntzakoek (74; +40), azken urteetan nabarmen hobetu direla ikusten baita. Horietako lehenebizikoan, hala ere, Nafarroak oraindik hobetu egin behar du erreferentziako eskualdeen aldean (12; +3).

LEHIAKORTASUNAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK Enpresa ingurunea	BERRIENA							RANKINGA, AURREKO 4 URTEEKIKO					
	Azken urtean	Nafarroa	Erreferentzia-erreg.	EB	Espainia	Alemania	Txekiar Errepublika	...EUROPAKO ESKUALDE GUZTIAK		...ERREFERENTZIAZKO ESKUALDEAK		...ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
								Berriena	Δ	Berriena	Δ	Berriena	Δ
Adierazlea													
Giza baliabideak zientzian eta teknologian (2017)	2019	18,6	22,9	22,1	16,6	28,1	21,6	120	▲+10	15	—	4	▼-1
Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailakoa duten 25-64 urte bitarteko biztanleak	2019	70,8	78,7	78,7	61,3	86,6	93,7	160	▲+4	13	▲+2	3	—
Hirugarren mailako hezkuntzako ikasleak	2018	41,1	37,1	33,1	43,0	29,6	27,3	41	▲+7	4	—	12	▼-3
Lanbide Heziketako ikasleak	2018	45,1	59,9	49,2	43,8	47,8	65,6	79	▲+63	12	▲+3	7	▲+5
Etengabeko prestakuntzan parte hartzen duten 25-64 urte bitarteko biztanleak	2019	13,0	10,6	11,3	10,6	8,2	8,1	74	▲+40	4	▲+4	2	▲+13

2.4

Sektoreen espezializazioa eta bilakaera

Eskualdeko zientzia-, teknologia- eta enpresa-indarguneen azterketa, espezializazioari begira

ESPEZIALIZAZIO ZIENTIFIKOA Nafarroan, biztanle bakoitzeko argitalpenen ratioa 2,32tik (2007) 3,39ra (2017) igo da, eta Foru Komunitatea lehen postuan dago adierazle horretan erreferentziatzeko eskualdeekin (2,47), Espainiarekin (1,90), Alemaniarekin (2,03) eta EB-28rekin (1,67) alderatuta.

Espezializazio eta argitalpen gehien duten bi arlo zientifikoak honako hauek dira: Osasuna, aurreklinikoak eta klinikoak (argitalpen guztien %39,3 eta 158,5 espezializazioko indizea), eta Bizitzaren Zientziak (%30,2; 119,2), elikadura- eta osasun-lehentasunetatik hurbil. Aldiz, espezializazio txikiagoa ikusten da Ingeniaritzan eta Teknologian (argitalpenen %11,6; 62,9) eta Zientzia Fisikoetan (% 7,8; 44,2), garrantzitsuak baitira automobilgintzaren, mekatronikaren eta energiaren arloetan.

ESPEZIALIZAZIO TEKNOLOGIKOA Nafarroan patente kopuru handiena duten sektore teknologikoak ingeniariatza mekanikoa (%35,9; espezializazioa 125) eta kimika (%27,9; 117,2) dira. Hala ere,

ingeniaritza elektronikoaren sektorean, Nafarroak (eta Espainiak) azpiespezializazio argia du (%14,8 eta 62,7). Bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da, alde batetik, Ingeniaritza Mekanikoaren sektorean espezializazio-indizea nabarmen jaitsi dela (-% 25,7) eta Kimikan espezializazioa nabarmen handitu dela (+% 24,2).

Eremu zehatzei dagokionez, patente-kopuruaren arabera, honako hauek nabarmentzen dira: produktu farmazeutikoak (25,7 patente; espezializazioa 270); motorrak, ponpak eta turbinak (23,6 patente; espezializazioa 219); eta Bestelako makineria berezia (20,6; 172).

Nabarmentzeko moduko beste esparru batzuk dira elikagaien kimika (10,3 patente; espezializazio handienarekin, 350); bioteknologia (16,4; 211); eta aparatu elektronikoak, ingeniariatza elektronikoa, energia elektrikoa (20,1 patente; 109).

Kodea	Sektore edo eremu teknologikoaren izena	PATENTE KOP.		EHUNEKOAREN BANAKETA		NAFARROAKO ESPEZIALIZAZIOAREN INDIZEA	
		EB27	Nafarroa	EB27	Nafarroa	2014-17	2006-09tik 2014-17ra arteko aldakuntza (ep)
33-35	Bestelako sektoreak	19.064	33,3	7,3	12,0	165	-81
25-32	Ingeniaritza mekanikoa	77.472	90,2	29,5	32,4	110	-16
14-24	Kimika	65.750	75,8	25,1	27,2	109	3
09-13	Tresnak	42.338	39,5	16,1	14,2	88	49
01-08	Ingeniaritza elektronikoa	57.798	39,6	22,0	14,2	65	10
18	Elikagaien kimika	2.768	10,3	1,1	3,7	350	151
16	Farmazia produktuak	8.975	25,7	3,4	9,2	270	72
33	Altzariak, jokoak	5.131	12,6	2,0	4,5	231	38
27	Motorrak, ponpak eta turbinak	10.155	23,6	3,9	8,5	219	-76
15	Bioteknologia	7.327	16,4	2,8	5,9	211	-79
12	Kontrola	5.601	11,7	2,1	4,2	196	117
29	Bestelako makineria berezia	11.286	20,6	4,3	7,4	172	-48
34	Kontsumoko bestelako produktuak	5.885	9,7	2,2	3,5	155	-316
2	Ikus-entzunezko teknologia	4.944	7,8	1,9	2,8	148	110
30	Prozesu termikoak eta aparatuak	4.712	7,2	1,8	2,6	145	-45
35	Ingeniaritza zibila	8.047	11,1	3,1	4,0	129	10

⁶ Espezializazio-indizeak adierazten du Europa28ko batezbestekotik (= 100 litzateke) zenbat dagoen Nafarroaren gainetik edo azpitik proportzionalki gai jakin batean. 100dik gorako indizeak espezializazio handiagoa adierazten du.

MERKATARITZA-ESPEZIALIZAZIOA Nafarroak esportazioen maximo historikoa lortu zuen 2019an. Nabarmentzekoa da, beti bezala, ibilgailu motordunen adarraren pisua Nafarroan (esportazioen %45,6); horrek azaltzen du kontzentrazio-indize altua, konparatutako gainerako lurraldeak bikoizten dituen (nahiz eta lurralde horiek askoz handiagoak izan).

Ibilgailu motordunen adarraren atzetik, lau adar hauek nabarmentzen dira: makineria eta ekipamendua (%13,2); elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (%11,8); material eta ekipo elektrikoa (%8); eta metalurgia eta produktu metalikoa (%7,2). Hala, bost adar nagusiek esportazioen %85,8 biltzen dute, eta, oro har, nahiko lotuta daude elkarren artean.

Bilakaerari dagokionez, ibilgailu motordunen kopuruak gora egin du 2013-2019 aldian, urteko %5,2ko tasarekin, batez bestekoaren

gaitetik (%4,3). Horrenbestez, kontzentrazio-maila pixkanaka handitu da. Makineriaren eta ekipoen sektoreak %2,9 egin du gora. Elikagaien industriaren sektorea ere batez bestekoaren gaitetik hazi zen, %8,6ra, baina dinamismoa galdu zuen aurreko aldiarekin alderatuta (urtean %11,2). Bestalde, material eta ekipo elektrikoaren adarraren bilakaeran aldaketa izan zen eta urtean %9 hazi zen (-%10,4, 2008-2013 aldian); azkenik, metalurgia eta produktu metalikoen sektorea modu egonkorrean hazi zen, urtean %2,1.


Honako hauek dira 2013 eta 2019 artean dinamismo handiena (esportazioen balioaren aldakuntza) izan duten sektoreak: farmaziako produktuak (%26,3), bestelako garraio-materiala (%24,6) eta industria ez-metalikoa (%20,0). Nolanahi ere, hiru sektoreek ekarpen txikiagoa egin diote esportazioen gutzitzaioari (%0,6; %0,5; %2,3, hurrenez hurren).

Sektore esportatzaileen bilakaera-taula


2015-2019 aldian sektoreek izandako bilakaera aztertzeko, hiru elementu hartzen dira kontuan: **sektore bakoitzaren garrantzia** (Nafarroako esportazioetan duen pisua),

lehiakortasun posizioa (munduko esportazioetan duen kuota) eta **dinamismoa** (esportazioen kuoten gorakada). Grafikoan, burbuila zenbat eta handiagoa izan arlo ekonomiko

garrantzitsuagoa izanen da, grafikoan zenbat eta gorago kokatu **lehiakorragoa** eta zenbat eta eskuinerago **dinamikoagoa**.




Iturria: Zerga Agentzia eta Nazio Batuak, Comtrade. Orkestrak egina. Garrantzia (i.e. kluster bakoitzak Nafarroako guztizko esportazioetan duen pisua: balaren tamaina), lehia-posizioa (kuota esportazioetan EU28: ardatz bertikala) eta dinamismoa (aldakuntza positiboa esportazioen kuotan EU28: ardatz horizontala).



- Goranzko balioa
- Gorabidean dagoen sektore izarra
- Hat-tricka
- Mehatxatutako motorra

⁷ Energia berriztagarrien balio-katea, nagusiki, honako sektore hauetan banatzen da: "makineria eta ekipoa" eta "material eta ekipo elektrikoa" eta, neurri txikiagoan, "metalurgia".



Sektore bakoitzaren esportazio-bolumenaren eta Europako kuotan duen pisuaren zein azken urteetan izan duen bilakaeraren arabera, sektoreen sailkapen hau lor daiteke:

Tipología 2014	Definizioa	Klusterak	2019 eta 2014 arteko bilakaera
Hat-tricka	Garrantzitsua, lehiakorra eta dinamikoa	Automobilgintza	Egoera mantendu du
		Ekoizpenaren teknologia eta makineria astuna	Pisua eta dinamismoa galdu du
		Elikagaien prozesamendua eta manufaktura	Egoera mantendu du
		Teknologia metalurgikoa	Pisua eta dinamismoa galdu du
Goranzko balioa	Lehiakorra eta dinamikoa	Etxeko aparatuak	Dinamismoa nabarmen murriztu du
		Eraikuntzako produktu eta zerbitzuak	Egoera mantendu du
Mehatxatutako motorra	Garrantzitsua, baina lehiakortasuna eta dinamika galdu ditu	Argiztapena eta ekipo elektrikoak	Funtsezko hobekuntza dinamismoan
Gorabidean dagoen sektore izarra	Dinamikoa	Papergintza eta paketegintza	Egoera mantendu du
		Aziendaren prozesamendua	Egoera mantendu du
		Metalea ez den meatzaritza	Erreferentziako eremuan eta dinamismoan kuota hobetu du
		Oinetakogintza	Hiru itemetan galdu du
		Basogintza	Egoera mantendu du

S4 estrategiak lehenetsuna ematen die berrikuntzarako gaitasun handiena eta esportazioetan garrantzi handiena duten eremuei, ekonomian eta kalitatezko enpleguan duten trankzio-izaeratik.

2.5

Indarguneen eta ahulezien azterketa, eta gomendioak

Diagnostikoko datuak balorazio kualitatibo batekin osatu behar dira. Balorazio hori gobernantza-organismoekin egindako parte-hartze prozesuen bidez egin da. Jarraian, landutako bost lehiakortasun-eremuetan (lehiakortasun-ingurunea, pertsonak, berrikuntza, enpresa eta nazioartea) identifikatutako indargune eta ahulgune nagusiak aurkeztuko ditugu, baita talde-lanean lehenetsitako gomendio edo orientazio estrategikoak ere, estrategia defintitzeko ondorengo fasea gidatu dutenak.



Lehiakortasun-ingurunea

- I** Gure ingurune naturalaren aniztasuna, ingurumenarekiko errespetuaren kontzientzia handiarekin
- I** Lurraldearen kokapena, mugaldean
- I** Bizi-kalitatea, oparotasun-maila handiarekin, aberastasunaren banaketa onarekin eta pobrezia-arriskuaren tasa txikiarekin
- I** Hurbileko administrazioa, araugintza- eta zerga-gaitasun propioak dituen
- I** Azpiegituren hedapen handia (errepideak, banda zabala)
- I** Biztanleria-dentsitate txikia
- A** Eskualdearen tamaina txikia da, eta eragiteko ahalmen txikia du. Erabakiak hartzeko zentroekiko urruntasuna
- A** Zahartzeko eta despopulatzeko arriskua landa-eremu batzuetan
- A** Administrazioaren konplexutasun burokratiko, teknologikoki eguneratzeko beharrarekin
- A** Eragileen arteko lankidetzaren hobetzeko eta bikoiztasunak saihesteko beharra
- A** Distantzia luzeko konexioen defizita tren eta/edo hegazkinez

Gomendioak:

- Administrazio elektronikoa eta sinplifikazio burokratiko bultzatzea
- Lurralde-oreka sustatzea, landa-eremuetan enpresa-proiektuak bultzatuz eta azpiegitura digitalak jarritz
- Jasangarritasuna lehiakortasun-abantaila gisa kokatzea, aukera industrialak eta teknologikoak sortzeko
- Agenteen bikoiztasunak saihestea antzeko jardueretan, baliabide publikoen erabilera optimizatuz



Pertsonak eta talentua

- I** LHko zentroyen eta unibertsitateen sarea
- I** Goi-mailako prestakuntza-maila handia
- I** Azken urteotan, lanbide-heziketak eta etengabeko prestakuntzak gora egin dute
- I** Enplegu-tasa altua, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta
- A** Luzaroko langabezia oraindik handia
- A** Ikasketarik eta enplegurik ez duten gazteen tasa altua da
- A** Sortzen diren profilen gainkalkifikazioa eta/edo desdoikuntza enplegatutako profilekiko
- A** Defizita LHn, ingeniartzetan eta teknologian
- A** Biztanleriaren zahartzea eta funtsezko sektoreen zahartzea

Gomendioak:

- Lan-eskaria eta hezkuntza-eskaintza lerrokatzea, STEM arloetako lanbide-heziketa duala eta prestakuntza teknologikoa indartuz
- Trantsizio digital eta jasangarrirako gaitasunak gaitzea eta eguneratzea, enplegurik ez duten pertsonen laneratzea eta birziklatze profesionala erraztuz
- Talentua enpresetan, teknologia-zentroetan eta unibertsitateetan erakartzea eta atxikitzea, eskualdeko ontasunei eta lan-eredu berrien aukerei etekina ateraz
- Unibertsitateko ikasleen prestakuntza duala sustatzea

I+G+B



- I** Zentro teknologikoen eta unibertsitateen sarea
- I** Eragin handiko argitalpenen tasa handia
- I** Patenteen ekoizpen handia eremu jakin batzuetan
- I** Berrikuntzarako baldintza optimoak: talentua, azpiegiturak eta laguntza-politikak
- A** Enpresei ezagutza-transferentziarik ez egitea, batez ere enpresa ertainei eta mikroETEEi
- A** Jaitsiera I+Gko inbertsioan, bereziki I+G pribatuan eta asmo handiko proiektuetan
- A** Sektore publikotik trakziarik ez izatea (Erosketa Publiko Berritzailea)
- A** Goi-teknologiako produktuak dituzten enpresak falta dira

Gomendioak:

- Berrikuntzaren aldeko konpromiso publiko-pribatua, Zientziaren Legearen helburuak ezarritik
- Jakintza sortzeko proiektu pilotuen garapena sustatzea, gizartearen erronka handiekin lerrokatuta
- Ezagutza enpresetara transferitzea erraztea, unibertsitate eta teknologia-zentroekin lankidetzan arituz eta enpresa-sarearen gaitasunak zabalduz
- Enpresen artean pentsamolde berritzaile eta teknologikoa sustatzea (I+G komunikatu eta hedatzea)



Enpresa garapena

- I** Enpresa-sare sendoa eta askotarikoa, industriak BPGari egiten dion ekarpena nabarmenduta.
- I** Eragileen arteko lankidetzeta-gaitasuna (enpresak, hezkuntza, zientzia/teknologia eta administrazioa).
- I** Produktibitate handia, ahaleginaren kultura
- I** Enpresaren gizarte erantzukizuna
- I** Enpresa handien presentzia hainbat sektoretan.
- A** Masa kritikorik eza eta tamaina txikiko enpresa asko egotea; horrek berrikuntza, esportazioa eta lankidetzeta mugatzen ditu.
- A** Ekintzaitzeta-kultura eta/edo barne-ekintzaitzeta eskasa.
- A** Produktibitatean posizioak galtzea
- A** Batez ere kostuetan oinarritutako lehiakortasun-eredua, balioan edo bereizketan oinarritu ordez.
- A** Ezagutza intentsiboko zerbitzu-enpresen eskasia, digitalizaziorako beharrezkoak.
- A** Erabakitzeko gaitasun txikia enpresa handi askotan
- A** Atzerapena enpresa-digitalizazioan

Gomendioak:

- Enpresa-lehiakortasuna sustatzea berrikuntzagatiko bereizketa-estrategien bidez, balioa emateagatik lehiatuz, eta ez hainbeste kostuan
- Enpresa-tamainaren hazkundea sustatzea, batez ere manufaktura-enpresena
- Negozio-aukera berriak sortzeko lan egitea, ekintzaitzaren, barne-ekintzaitzaren eta etorkizuneko erronketarako dibertsifikazioaren bidez
- Industriadako digitalizazio-programak eta -zerbitzuak bizkortzea, produktibitatea eta negozio-eredu berriak handitzeko giltzarri gisa



Nazioarteratzea

- I** Eskualdearen irudi ona ingurunean
- I** Multinazionalen presentzia handia
- I** Esportazioen bilakaera positiboa
- I** Europarekin lerrotatutako politikak
- A** Esportazioen gehiegizko kontzentrazioa sektore gutxitan, enpresa gutxitan eta Europarantz
- A** Salgaien eta bidaiarien garraioko konexio mugatuak
- Europako ekosistema eta plataformekin lotzeko ekintza berriak, bai eta Europako finantzaketari laguntzeko bideak ere (NGEU, Horizon EU...)

Hurrengo taulan, Nafarroako Gobernuaren planek lehentasun tematikoetan dituzten eragina eta fokua laburbiltzen dira.

	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2021-2024	Nafarroako Industrializazio Plana 2021-2025	Nafarroa 2030 Estrategia Digitala	Ekintzaitzeta Plana 2021-2024	Ekintzaitzeta Plana 2021-2024 Ekonomia Sozialaren 2021-2024ko II. Plan Integrala	Nafarroako Nazioarteko Plana (NNP4) 2021-2022	Kanpo Ekintzako Plana 2021-2024
Lehentasun tematikoak							
Mugikortasun elektrikoa eta konektatua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua			Inpaktua	Inpaktua
Elikadura osasungarria eta jasangarria	Inpaktua	Inpaktua		Inpaktua		Inpaktua	Inpaktua
Energia berdearen industria	Inpaktua	Inpaktua				Inpaktua	Inpaktua
Medikuntza pertsonalizatua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua		Inpaktua	Inpaktua
Turismo jasangarria							
Ikus-entzunezko industria							Inpaktua
Trantsizio industriala							
Trantsizio ekologikoa	Inpaktua	Inpaktua		Inpaktua	Inpaktua		
Trantsizio digitala	Inpaktua	Inpaktua	Fokua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua	
Trantsizio soziala			Inpaktua		Fokua		
Factores de competitividad							
Ingurune lehiakorra	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua			Inpaktua	Inpaktua
Pertsonak eta talentua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua	Inpaktua		
I+G+B	Fokua		Inpaktua	Inpaktua			
Enpresa garapena		Fokua	Inpaktua	Fokua	Inpaktua		
Nazioartekotzea						Fokua	Fokua

4.2

Bideratutako planak

Oso zeharkako planekin batera, badaude plan sektorial batzuk, lehenetasun tematikoetara oso bideratuta daudenak eta lehenetasun bakoitzari lotuta eraturako taldeetan lantzen direnak. Plan horiek garatzen dituzte, askotan, lehenetasun tematiko bakoitzean jasotzen diren trantsizioetara gehien bideratzen diren politikak eta inbertsio pizgarriak, eta haien ekarpena monitorizatuko da lehenetasun bakoitzaren jarraipenaren barruan, eta, hala badagokio, hobekuntzak edo aldaketak proposatuko dira.

Honako hauek dira nagusiak:**Nafarroako Landa Garapenerako Plana 2021-2027**

Jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko eta landa-eremuetan ingurumena zaintzeko laguntzen multzo bat aurreikusten du. Haren neurriek honako hauek errazten dituzte: nekazaritzako elikagaien katearen energia efizientzia eta efizientzia hidrikoa eta bioekonomia; ekosistemen babesa; nekazaritzaren eta basogintzaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna; eta gizarte inklusioa eta tokiko garapena.

2030erako Energia Plana

Energia Planak energia berriztagarrien eta energia zentzuz erabiltzearen alde egiten du, energia-konsumoko eredu berri baten bidez, energia berdea sortzeko, kontsumo kolektiborako eta sorkuntza puntutik hurbil egoteko ekintzak sustatuz.

Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia Integrala 2021-2030

Estrategiaren helburu nagusia da Nafarroa nazioarteko erreferente izatea prebentzio, diagnostiko eta tratamendu pertsonalizatuei aplikatutako medikuntza genomikoan, ikerketa bikaintasunaren bidez, eta Nafarroako herritarrei onurak ematea; barne hartuta osasun sistema eraginkorragoa eta iraunkorragoa, hazkunde ekonomikoa eta kalitatezko enplegua.

Turismo Plana 2018-2025

Honako hauek planteatzen ditu helburu orokorgisa: Nafarroak hurbileko merkatuetan duen posizionamendua sendotzea; Nafarroa eta Iruña Europako turismo merkatuan kokatzea; turismoaren lehiakortasuna segmentuen eta produktuen bereizketara bideratzea; enpresaburuen eta turismo erakundearen arteko lankidetzaren bultzatzea; eta administrazioen arteko koordinazioa hobetzea.

Azkenik, badira S4rekin zerikusia duten beste plan batzuk ere, beren jarduketara esparruan honako hauek garatzen laguntzen dutenak: lehenetasun tematikoak, trantsizio digitala eta ekologikoa, edo eskualdeko lehiakortasun faktoreak. Adibidez: Nafarroako Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa, Nafarroako Kulturaren

Plan Estrategikoa 2017-2023, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Gidaria 2018-2030, Hidrogenoaren Agenda edo Banda Zabalaren Plana. Gobernuaren plan edo agenda horietako edo beste batzuetako jarduketak kontuan hartuko dira S4 lehenetasunen arabera lanetan.

A grayscale industrial scene featuring a robotic arm on the left and a worker in a dark jacket on the right holding a tablet. The background is a blurred factory floor with overhead lights. A large white number '5' is positioned in the upper left, partially enclosed by a white circular arc. The text 'GOBERNANTZA, INPLEMENTAZIOA ETA MONITORIZAZIOA' is centered in the middle of the image.

5

**GOBERNANTZA,
INPLEMENTAZIOA
ETA MONITORIZAZIOA**

5.1

Gobernantza. S4 erakunde arduraduna

Espezializazio adimentsuaren estrategiek eskualdeko lehiakortasunean eragitea bilatzen dute, eta, bereziki, produkzio sistemak eraldatzen laguntzea. Hori dela eta, alderdi interesdun guztien inplikazioa eta koordinazioa behar da, lan eremu guztietan eraginkortasunez ezartzeko.

S4ren gobernantza ereduak espazioak sortzen ditu eskualdeko garapenaren “helize laukoitza” izenekoak diseinuaren, inplementazioaren eta ebaluazioaren faseetan parte hartzeko: ekonomia eta produkzio eremua, ezagutza eremua (goi-mailako hezkuntza eta ikerketa), administrazio publikoa eta gizarte zibila.

Aurreko urteetako aurrekariak eta ikaskuntza kontuan hartuta, S4ren gobernantza bost lan-organo nagusitan egituratzen da: zuzendaritza batzordea, koordinaziorako batzorde publikoa, plataforma estrategikoa, S4ren erronken taldeak eta koordinazioko talde teknikoa, eskema honen arabera:



1. Zuzendaritza batzordea

Nafarroako S4ren organo exekutiboa eta zuzendaritza organoa, Nafarroako Gobernuak, lehentasunezko arloetako enpresen sorta batek, unibertsitateek eta zentro teknologikoei, eta enpresaburuen eta langileen ordezkariak osatzen dutena. Horrela, helize laukoitzeko ordezkariak bermatuko da gobernantza organo nagusian.

2. Koordinaziorako batzorde publikoa

Nafarroako Gobernuko departamentuek, zuzendaritza nagusiek eta zerbitzu zuzendaritzek eta S4ren erronketan gehien inplikaturako enpresa publikoek osatutako organoa. Bere eginkizunak dira politika publikoak koordinatzea eta lerrokatzea, baliabideen esleipena eta aurrekontuen onespina ziurtatzea, eta strategiaren jarraipena egitea, batez ere planei, estrategiei eta ekintza publikoei begira.

3. S4ren plataforma estrategikoa

Parte-hartze zabala, malgua eta askotarikoa duen organo aholku-emailea da, eskualdeko garapenaren helize laukoitza biltzen duena, eta strategiari buruzko komunikazio, kontsulta eta sormen funtzioak ditu. Ideia eta proposamen berriak aurkezten ditu, eta jarraipen faseetan ekarpenak eskatzen ditu.

Zuzendaritza batzordean nahiz koordinaziorako batzorde publikoan parte hartzen duten pertsonak biltzen ditu, eta ordezkaritza handitzen du honako hauen bidez: banakako enpresak, lurralde eta tokiko garapeneko eragileak, talde parlamentarioak, gizarte eragileak, enpresa elkarteak eta klusterrak, besteak beste.

4. S4ren erronken taldeak

S4 lehentasunen jarraipen tekniko eta ebaluazioa egiteko organoak, barnean hartzen dituztenak gai bakoitzean espezializatutako elkarteak eta klusterrak, ezagutza zentroak eta eragile publikoak. Bere funtzionamendua hurrengo atalean zehazten da.

5. Koordinazioko talde teknikoak

Azkenik, SODENAren Eskualdeko Strategiaren Arloak strategiaren jarraipena egiteaz gain, estrategia etengabe eguneratzen du eta, orobat, laguntza ematen die gobernamentu organoei eta eragile nagusiei (gubernua, klusterrak, zerbitzu publikoak, ikerketa eta ezagutza zentroak...) S4ren ezarpena eta monitorizazioa egiteko.

S4 plataforma estrategikoa - Nafarroa

- Nafarroako Gobernua
- Unibertsitateak, teknologia-zentroak eta LHko ikastetxeak
- Tokiko garapenerako agentziak eta lurralde eragileak
- Tokiko sektoreko erakundeak
- Enpresak/profesionalak
- Enpresa taldeak eta klusterrak
- Eragile sindikal eta enpresarialak
- Nafarroako Parlamentua

S4 koordinaziorako batzorde publikoa - Nafarroa

- Kontseilariak eta zuzendaritza nagusiak
- Zerbitzuko zuzendaritzak
- Enpresa publikoetako kudeatzaileak
- Enpresa publikoetako arloko arduradun

S4 Zuzendaritza Batzordea - Nafarroa

- Nafarroako Gobernua
- Enpresak/profesionalak
- Unibertsitateak eta zentro teknologikoak
- Eragile sindikal eta enpresarialak.

S4ren erronken taldeak

- Elkarteak eta klusterrak
- Jakintza-zentroak
- Gai bakoitzean espezializatutako aktore publikoak

SODENAko koordinazio-talde teknikoa

5.2

S4ren erronken araberako ezarpena

Esan bezala, S4k sektore tradizionalak etorkizuneko gizarte eta ingurumen erronketarantz ekonomia arloan eraldatzea eskatzen du, erronka horiek **eragin sistemikoa duten konponbide berritzaileak** behar baitituzte. Hau da, ez da nahikoa banakako

egokitzapen hutsak egitea; aitzitik, ekoizpen eta kontsumo sistemak paradigma berrietarantz abiatzea dakarte, eta, beraz, hainbat azpisistematatan (prestakuntza, zientzia, ekoizpena, kontsumoa...) aldi berean aldaketak egitea eskatzen dute.

Planteatutako erronkei irtenbideak emateko, honako hauek behar dira bereziki: lankidetzak publiko-pribatua, ezagutza sortzea eta sektoreen eta diziplinen artean trukaketa, berrikuntza sustatzeko politika egokiak, eta esperimentaziorako proiektu pilotu frogagarriak.

Zortzi lehentasun estrategikoetako bakoitzeko lana S4ren erronketan egituratzen da, eta erronka horiek lehentasunak eraldaketa helburuetan zehazten dituzte. Lanak lehiakortasun eremu desberdinetako proiektu osagarri batzuei jarraipena egitea dakar: azpiegiturak, araudia, prestakuntza, berrikuntza proiektuak, ekintzailak... S4ren erronka baten proiektu guztien helburua da ekosistema egungo posiziotik lortu nahi den etorkizuneko posiziora abiatzea, **trantsizioari laguntzeko programak, jarduerak eta pizgarriak** hedatuz.

S4ren erronken jarraipenak eta sustapenak berariazko partaidetza sistema bat du, **S4ren erronken taldeak**, hain zuzen, eta talde horiek ibilbide-orri eraldatzailea sortu behar dute, inpaktu helburu batzuk finkatu behar dituzte, eta ibilbide-orriko proiektu guztien jarraipena egin behar dute. Taldeek S4n zehaztutako **enpresa- eta teknologia-aukera berriak** detektatu eta landu behar dituzte zientzia-teknologia-enpresa sistemako eragileen arteko lankidetzaren bidez.

Sistemak S4ko gobernantza maila guztietako lana hartzen du barnean, eta maila hauek ezartzen ditu:

ERRONKAREN TALDEA

Helize hirukoitzeko eragile espezializatuen taldea, lehentasun desberdinen ikuspegi orokorra duena.

S4ren erronka bakoitzaren ibilbide-orria definitzen dute, haren jarraipena egiten dute eta urteko gomendio-txosten bat prestatzen dute.

S4REN PLATAFORMA

Proiektuak gaika hausnartzeko eta aztertze guneak, urteko txostenak kontrastatzeko eta ildo eta behar berriak detektatzeko.

KOORDINAZIO BATZORDE PUBLIKOA (S4KBP)

Koordinaziorako batzorde publikoak (S4KBP) bilakaera txostena jaso, eta hobekuntza proposamenak aztertzen ditu.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

S4KBPk lehentasun bakoitzari buruz egindako txostenak berrikustea urteroko, eta gomendioak baloratzea eta onartzea.

5.3

Monitarizazioa

Estrategia 2021-2027 aldirako eguneratzeak aurreko programazio alditik zegoen etengabeko monitorizazio ereduari eusten dio, tresnak aldi berrian gauzatu den esku-hartzearen logikara egokituz.

Zehazki, monitorizazioa hiru mailatan egiten da, helburu orokorrak dituen eskualdeko profiletik ("Aginte koadroa" tresnaren bidez)

lortu nahi den espezializatorako ("Sektore bilakaeraren koadroa" tresnaren eta "Industria Behatokia"ren bidez) bidea, zeharkako faktoreetako lanaren jarraipena (politika publikoko tresnak edo "policy mix") eta S4 estrategiak bultzatutako eskualdeko eraldaketaren helburuen neurketa ("S4ren erronken kontrola" tresnaren bidez).

TRESNAK

1/ Eskualdeko bilakaera

"Aginte koadroa" **tresna**
Nafarroako profila neurtzea

2/ Espezializazioaren bilakaera

"Sektore bilakaeraren koadroa" **tresna**
Espezializazioaren bilakaera neurtzea
Industria Behatokia S4 lehentasunak

3/ Ezarpen prozesua

"S4 Erronken kontrola" **tresna**
Lehentasan bakoitzaren bilakaera neurtzea
Zortzi lantalde

4/ "Policy mix" en bilakaera

"Zeharkako planen jarraipena" **tresna**
Koordinazioa Lursarearekin eta tokiko garapeneko agentziekin
Koordinazioa behatoki publikoekin

5/ Gardentasuna eta ebaluazioa

"Tresnak eta txostenak webgunean argitaratzea" **tresna**
Aldizkako kontrola, eta reporting-a egitea S4 gobernantza organoei
Ezarpen-prozesuari buruzko kanpo-ebaluazioaren txostena

A/ Eskualdeko bilakaera - "Aginte koadroa" tresna

S4ren aginte koadroaren bidez, S4ren helburu orokorren betetze-maila neurtzen da eskualdearen ikuspegitik, makro adierazleen bidez. Adierazle horiek strategiaren esku-hartzearen logikaren arabera multzokatzen dira, bloke hauetan:

Estrategiaren azken helburuak eskualdeko oparotasuna eta bizi-kalitatea hobetzera bideratzen da.

S4ren trantsizio handien helburuak eskualdeko ekonomiaren trantsizio ekologikoa eta trantsizio digitala neurtzen dira.

Lehiakortasuna hobetzeko helburuak lehiakortasun faktoreen inpaktua neurtzean oinarritzen da: I+G+B, nazioartekotzea, enpresa garapena eta pertsonak eta talentua.

Aginte koadroak adierazle bakoitzaren helburuak zehazten ditu 2025erako eta 2030erako, eskualdean epe ertainera eta luzera gertatu behar diren aldaketa handien bila. Adierazle bakoitzaren bilakaera aztertze aldera, estrategia onartzen den unean haren oinarria jasotzen da. Aldian-aldian argitaratuko da adierazleen eguneratzea Nafarroako S4ren webgunean, eta bertan adierazle bakoitzari buruzko informazio gehigarria ikusten ahalko da (metodologia, iturria, bilakaeraren grafikoak...), baita beste informazio osagarria ere, adierazleen sakontze premien arabera sortzen joanen dena.

	Oinarri-puntua	2025 jomuga	Azken xedea 2030
Azken helburuak			
Per capita BPGa Europako batez bestekoaren gaineko ehuneko (BPG PPSn). EB27 = %100	% 111 2019. urtea	% 115	% 120
Pobrezia-arriskuaren tasa Pobrezia-arriskuan dauden biztanleen %	% 7,7 2019. urtea	% 6	% 5
Aberastasunaren banaketa GINI indizea (aberastasunaren berdintasunezko banaketa)	29,6 2019. urtea	28	26
Langabezia-tasa Langabezia-tasa biztanleria aktiboan (%)	9,0 % T4-2019	% 7	% 5
Trantsizio ekologikoa			
Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea BEG isurketa guztien murrizketa 2005eko mailen gainean	% -14,74 Año 2018	% -32,5	% -45
Industria hondakinak 2010eko oinarriarekiko industria-hondakin murrizketaren %a	% 23,9 2019. urtea	% -11,4	% -13
Energia berriztagarriak Energia berriztagarrien ekarpena azken energia-kontsumoan (%)	% 21,41 2019. urtea	% 40	% 50
Energia-intentsitatea Azken energia-kontsumoa BPGaren gainean (PTB/euro konstanteak 2008)	90,7 2019. urtea	65	56
Trantsizio digitala			
Banda zabal ultra-azkarra 100 Mbps edo gehiagoko estaldura duen biztanleriaren %	% 81,2 2019. urtea	% 93	% 100
Administrazio digitala Administrazioarekin elkarreragiteko Internet erabiltzen duten pertsonen %	% 59,0 2019. urtea	% 75	% 95
Trebetasun digitalak Abilezia digitalak, oinarrikoak baino handiagoak, dituzten banakoen %	% 37,4 2019. urtea	% 60	% 95
Enpresa digitala Cloud computing zerbitzuak erosi zituzten enpresen % (Internetarako sarbidea duten enpresa guztiekiko)	% 22,1 2019. urtea	% 40	% 80
I+G+b			
Inbertsioa I+G+b-n (GERD) I+G+b arloko inbertsioaren % BPGrekiko (GERD)	% 1,70 2019. urtea	% 2,6	% 3
I+Gra dedikatutako langileak I+Gko langileen % (Lanaldi Osoaren Baliokidetasuna)/biztanleria landuna	% 1,75 2019. urtea	% 1,9	% 2
Aurrekontu publikoa I+G+b-n I+G sustapenean egindako inbertsio publikoaren %, Nafarroako Aurrekontu Orokorrekiko	% 1,45 2020. urtea	% 1,6	% 2
Regional Innovation Scoreboard RISen kalifikazioa	Moderate RII-2019	Strong -	Strong+
Nazioartekotzea			
Esportazioak Nafarroako esportazioen bolumena (M €)	10.205 2019. urtea	11.000	12.000
Esportatzaile erregularrak Ondoz ondoko 4 urtetan esportatu duten enpresak	965 2019. urtea	1.100	1.200
Enpresa esportatzaileak Esportatzen duten enpresen kopurua	2.931 2019. urtea	3.100	3.300
Europatik kanpoko esportazioak Europako kontinentetik kanpoko herrialdeetara egindako esportazioen balio ekonomikoaren %	% 25,6 2019. urtea	% 30	% 35
Enpresa garapena			
Enpresen tamaina 50 langile baino gehiagoko enpresen kopurua	445 2019. urtea	580	660
Lan-produktibitatea Eskualdeko batez besteko produktibitatea (euro/langileko)	68.850 2019. urtea	74.000	80.000
Ekintzailtza-jardueraren tasa Merkatuan 3,5 urtera arteko bititza duten ekimenen %, 18-64 urteko biztanleriarekiko.	% 5,20 2019. urtea	% 5,7	% 6,2
Regional Competitiveness Index Europako eskualde lehiakorrenen arteko posizioa	165 2019. urtea	140	120
Pertsonak eta talentua			
Lan egiten edo ikasten ez dutenen tasa Lan egiten edo ikasten ez duten 15-24 urteko biztanleen %	% 8,5 2019. urtea	% 7	% 5
Etengabeko prestakuntza Etengabeko prestakuntzan ari diren 25-64 urteko biztanleen %	% 13,0 2019. urtea	% 16	% 20
Goi mailako tituludunak Goi-mailako prestakuntza duten 25-64 urteko biztanleen %	% 47,1 2019. urtea	% 50	% 55
LHko ikasketak amaitu dituztenak eta laneratzea LHko ikasketak amaitu dituztenen kopurua (eta laneratzearen ehuneko)	2.459 (% 86) Curso 2018/2019	3.600 (% 85)	4.200 (% 90)

B/ Sektorre bilakaera – “Sektorre bilakaeraren koadroa” tresna eta “Industria Behatokia”

Sektorre bilakaeraren koadroa monitorizazio tresna bat da, eskualdearen egitura ekonomikoaren bilakaera neurtzeko aukera ematen duena sektorekako segmentaziotik abiatuta eta lehenetsitako eta lehenetsi gabeko arloak alderatuz. Nafarroako Estatistika Institutuak (NASTAT) urteko kontabilitatean argitaratzen dituen adierazle ofizialek osatzen dute, eta urtero argitaratuko da S4ren webgunean. Bertan, gainera, txosten gehigarriak argitaratuko dira, eskualdean espezializazio prozesua nola gertatzen ari den ulertzeko.

Alde horretatik, **industria behatoki** bat jarriko da abian, lehenetsun tematikoen bilakaera kuantifikatzeko eta ebaluatzeko aukera emanen duena balio-kateen eta hura osatzen duten azpisektoreen enpresa portaeraren ikuspegitik. Informazio hori beharrezkoa izanen da S4n jasotako lehenetsun tematikoak garatzeko politikak eta enpresa klusterretako lana hobetzeko.

Dokumentu honen amaieran, taula bat dago, eta bertan jasotzen da urteko kontabilitatean oinarrituta Nafarroako sektore ekonomikoek azken urteetan izan duten bilakaera.

C/ Ezarpenaren bilakaera – “S4ren erronken kontrola” tresna

Lehenetsunezko sektoreen eraldaketa ebaluatzeko, S4ren erronkak monitorizatzeko tresna proposatu da. Tresna hori erronka bakoitzean lantzen da, **lehenetsun tematiko bakoitzaren** jarduerak eta helburuak monitorizatzeko.

Era berean, erronka bakoitzaren bilakaera kualitatiboa eta kuantitatiboa aztertzea ahalbidetuko duten txostenak definituko dira, eta S4ko lehenetsun tematiko bakoitzean zehaztutako ikuspegia lortzeko ekintza berriak proposatuko dira.

D/ Policy mix en bilakaera

S4ren helburua da ikuspegi sistemikoa izatea pizgarri, programa eta laguntza publikoen multzoa eremu jakin batzuetan (“policy mix”) hedatzeko. Horregatik, ekintza batzuk egiten dira, helburu dutenak estrategiaren tresna nagusiak monitorizatzeko tresnak koordinatzea eta bateratzea. Zehazki, honako hauek landuko dira:

Lantalde bat koordinaziorako batzorde publikoaren barruan, **laguntza publikoen emaitzen adierazleak** hautatu eta **neurtzeko**, plan publiko nagusien jarraipena barne, politika publikoen monitorizazioa eta ebaluazioa hobetzen laguntzeko.

Estrategia eskualdeka hedatzen laguntzea. Eskualdeko strategiaren hedapenean lurraldeko lankidetzak errazteko, S4 tokiko garapenerako eragile eta erakundeekin koordinatuko da eskualdeko adierazlearen monitorizazioan.

Eskualdeko beste behatoki batzuekin koordinatzea. Koordinazio horri esker, adierazle osagarriak izanen ditugu, eta S4ko adierazle orokorragoetan sakonduko dugu, gobernantza organoek hala eskatzen dutenean.





GARDENTASUNA ETA EBALUAZIOA

Gardentasun ereduak sustatzen du eskura dagoen informazio guztia eragileei eta gizarte zibilarri ezagutaraztea, eta, gainera, estrategien parte hartzea eta estrategiaren hedapena hobetzea.

A/ Publizitatea eta gardentasuna

S4ren monitorizazio ereduak kudeatzeaz arduratzen den erakundea da Sodena, Nafarroako Gobernu departamentuekin koordinatuta. www.s4navarra.es webgunea jarri da abian, eta bertan diagnostiko osoa eta S4 estrategia daude eskuragarri. Ezarpena aurrera doan neurrian, eguneratu egingen da, S4ri buruzko albiste garrantzitsuak (proiektuak, jarduerak, garapen planak...) eta monitorizazioari buruzko informazioa (monitorizazio tresnak, txostenak...) argitaratuz.

B/ Aldizkako kontrola

Urtero txostenak egingen dira S4k Europako espezializazio adimentsuaren estrategia guztiek bete behar dituzten **baldintza mesedegarriaren irizpideetan** adierazitako betebeharrak betetzeari buruz.

Azken elementu gisa, **kanpo ebaluazioko sistema independente** bat ezartzen da. Horren bidez, azterketa tekniko bat egingen da 2021-2027 aldiaren erdialdean strategiaren hedapenari eta monitorizazioari buruz eta horri lotutako politika publikoen bilakaerari buruz. Une oro independentzia eta zorroztasuna bermatuko dira.

6

**BALDINTZA
MESEDEGARRIA
BETETZEA**

Hitzaurrean esan bezala, “**espezializazio adimentsuaren eskualde-estrategiaren gobernantza ona**” baldintza mesedegarria da EGEF (Eskualde Garapeneko Europako Funtsa) programako funtsetan parte hartzeko. Horretarako, zazpi irizpideak egiaztatu behar dira 2021-2027 aldian modu jarraituan. Puntu honek Nafarroak baldintza mesedegarriaren zazpi irizpideak betetzeko dituen bideak laburbiltzen ditu:

Irizpidea 1

Berrikuntza eta digitalizazioa hedatzeko itoguneak aztertzea.

Diagnostiko bidez betetzea (dokumentuaren 2. atala), bi puntuetan inkesta espezifikoak eginda

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2021-2024

Nafarroako Industrializazio Plana 2021-2025 (trantsizio ekologikoa eta digitala)

Irizpidea 2

Espezializazio adimentsuaren estrategiaz arduratzen den erakundea

Gobernantzari buruzko dokumentuaren 5.1 atala

Irizpidea 3

Jarraipen- eta ebaluazio-tresnak.

Monitorizazioari buruzko dokumentuaren 5.3 atala

Irizpidea 4

Enpresa-aukerak aurkitzeko prozesuaren funtzionamendua

Dokumentuaren 3.3 atala, lehentasun bakoitzeko lan-ildoak deskribatzen dituen

S4ren erronketako lanari buruzko dokumentuaren 5.2 atala, lan-ildo horietan izandako parte-hartzea azaltzeko

Nafarroako Industrializazio Plana 2021-2025 (klusterren politika)

Nafarroako III. Ekintzailatza Plana 2021-2024 (programa tematikoak)

Irizpidea 5

Ikerketa- eta berrikuntza-sistema hobetzea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2021-2024

Irizpidea 6

Industria-trantsiziorako ekintzak

Nafarroako Industrializazio Plana 2021-2025 (trantsizio ekologikoa eta digitala)

Nafarroa 2030 Estrategia Digitala (trantsizio digitala)
Ekonomia Sozialaren 2021-2020ko II. Plan Integrala (trantsizio soziala)

Lehentasunezko arloetan trantsizioa helburu duten plan gisa:

- Nafarroako Landa Garapenerako 2021-2027 Plana
- 2030erako Energia Plana
- Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia Integrala 2021-2030
- Turismo Plana 2018-2025

Irizpidea 7

Nazioarteko lankidetzarako neurriak

Nafarroako Nazioarteko Plana 2021-2022

Kanpo Ekintzako Plana 2021-2024

7

ERANSKINAK



MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA ETA KONEKTATUA



1. ESKUALDEKO ESPEZIALIZAZIOA

Ezaugarriak	<p>Nafarroan sektore industrial garrantzitsuena da, 120 enpresa baino gehiago baititu eskualdean; eta erdia baino gehiago enpresa handiak dira</p> <hr/> <p>13.000 lanpostu sortzen ditu Nafarroan, eta 6.500 milioi euro inguruko negozio-zifra</p> <hr/> <p>Automobilgintza eskualdeko sektore esportatzailearik handiena da eta izan da azken urteotan, Nafarroako esportazio guztien % 46 baino gehiago eragiten baitu</p> <hr/> <p>Sektoreak enpresa multinazional ugari ditu; horietako askok produktuez hornitzen dituzte OEM nazional eta atzerriarrak</p> <hr/> <p>VW-Nafarroa izeneko OEMaren presentziari esker, ehun garrantzitsu bat dago, balio-kate tradizionaleko katebegi desberdinak estaltzen dituena funtsezko TIER1 eta TIER2 produktuen bidez, baita zerbitzuaz hornitzen duten enpresak ere (JIT hornidurarako muntaia eta logistika)</p> <hr/> <p>2018tik, NAVEAC plataformak Nafarroako enprekin egiten du lan ibilgailu elektriko, autonomo eta konektatuaren inguruan eraldaketa industrialia egiteko</p> <hr/> <p>Nabarmentzekoa da plastikoaren azpisektoreko enpresa asko daudela, baita metalezko produktuen eta osagaien birmanufakturarenak ere</p> <hr/> <p>Sektorearen bilakaerak beste balio-kate batzuekiko lotura erraztu du, adibidez, energia berriztagarriekiko lotura ibilgailu elektriko xede izanda</p>
Balio-katea	<p>Enpresak: VW Navarra, ZF-TRW, SAS, Faurecia, Dana, KYB, Sunsundegui, Ingeteam, Gestamp, Tecnoconfort, SKF, Aptiv, Maier, GKN, KWD, Frenos Iruña, Istringhausen, Plastic omnium, Mapa...</p> <hr/> <p>Jakintza entitateak: NAITEC, CENER, NUP, Nafarroako Unibertsitatea...</p> <hr/> <p>Laguntza entitateak: ACAN, ENERCLUSTER, ATANA, FUNCTIONAL PRINT...</p>
Sortzen ari diren ekimenak	<p>Startupak: Beeplanet (bigarren bizitzako bateriak).</p> <hr/> <p>Proiektuak: BOLETUS (mikrobus elektriko eta autonomoa), VAIVEC (ibilgailu autonomo industrialia), VELETA (ibilgailu autonomoa eta espazio itxietan konektatua), NABATT proiektua (battery pack-ak fabrikatzeko partzuergoa); NaVEAC Drive Lab (gizatze osagai eta sistema jasangarri eta konektatuen esperimentazioa)</p>
Nazioarteko lankidetzak	<p>European Partnership - Connected and Automated Driving (CCAM)</p> <hr/> <p>European Partnership – Towards zero-emission road transport (2ZERO)</p> <hr/> <p>S3 Platform safe and sustainable mobility</p> <hr/> <p>S3 Platform advanced materials for batteries</p> <hr/> <p>European Battery Alliance</p>

2. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2030 ikuspegia



Nafarroa nabarmentzen da mugikortasun elektrikorako eta konektaturako sistema berriak ekoizteagatik, balio-kate iraunkorrarekin, energia berriztagarrietan duen gaitasuna integratuz eta esperimentatzeko eskualde berriztailetzat aitortuz

FOKUA



- Ibilgailu elektriko, autonomo eta konektaturako produktuen garapena
- Osagaien birmanufaktura eta birziklapena
- Hiri-mugikortasuna eta energia-sareetan integratzea

Joerak

Garraioa pixkanaka deskarbonizatzea, propulzio elektrikoa edo beste erregai garbi batzuk (bioerregaiak, hidrogenoa...) ezartzeko bidean

Iturri % 100 berriztagarriak dituzten ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak, noranzko biko eta hari gabeko birkarga

Gidatzeko automatizazio maila handiagoa duten ibilgailuak garatzea, pertsonen segurtasuna eta kontsumoaren aurrezki bilatuta

Ibilgailua pixkanaka azpiegiturarekin, beste ibilgailu batzuekin eta sarearekin konektatzea, eta ibilgailu autonomorantz eboluzionatzea

Erosteko ahalmen handia edo ertaina duten herrialdeetako bezeroentzat produktuak egokitzea

Negoio eredia eraldatzea, sektorean eragile berriak sartuz

Aldaketa sozialak eta belaunaldi berrien eskaerak, mugikortasunaren eta ibilgailuen kontzeptu berriak dakartzatenak, zerbituzio eta mugikortasun partekatuko ereduak bultzatuz

Elektrifikazioa bultzatuko duten araudia, laguntzak eta pizgarri fiskalak ezartzea

Gero eta hornitzaile gehiago biltzea enpresa talde handietan

Nazioarteko ikuspegia

Europako Itun Berdeak eta Mugikortasun Jasangarri eta Adimendunerako Estrategiak % 100 murriztu nahi dituzte 2035ean saltzen diren ibilgailu berrien isuriak (% 55 2030ean). 2050ean, garraioaren gutzizko ekarpenak % 90 isuri gutxiago ekarri behar ditu, garraio sistema adimentsu, lehiakor, seguru, irisgarri eta eskuragarri bati esker, klimatikoki neutroa den kontinentea izateko helburua lortze aldera

Era berean, 'Fit for 55%' planak (2030ean isurien % 55 murriztea) helburu bat ezartzen du: elektrizitatea kargatzeko postu bat, 60 kilometroz behin, bide nagusietan, eta 150 kilometroz behin, hidrogenoaren kasuan, 2035etik aurrera

Lotutako GJHak



3. LAN-ILDOAK

	Lan-ildoak	EA	TE	TD
01	Hornitzaileen balio-katea eskualdeko OEM digital, malgu eta jasangarriaren inguruan eraldatzea	●		
02	Ibilgailuetarako osagaien garapena eta sofistikazioa: sentsorizazioa, komunikazioak (osagaien artean eta/edo <i>Smart Cities</i> azpiegiturarekin), material berriak eta funtzionalitate berriak	●		●
03	Piezak eta osagaiak integratzea eta elkartzea, balio erantsi handiagoko moduluen eta sistemen hornitzaile bihurtzeko	●		
04	Konponbide jasangarriagoak, hala nola osagaien birmanufaktura, arintzea, material/baliabide birziklatuen erabilera	●	●	
05	Mugikortasun eredu eta energia horniduraren zerbitzazioa, bereziki <i>Smart Cities</i> ekin lotutakoena (komunikazioak eta zerbitzuak)	●	●	●
06	Energia biltegitratzeko sistemak (bateriak), kargatzeko sistemak (azpiegiturak), kudeaketa energetikoa (V2X) eta energia berriztagarria sortzeko sareetan integratzea (zerbitzuak)	●	●	
07	Logistika adimentsuago eta jasangarriagoaren eredu berriak, "azken miliako banaketa", biltegi partekatuak	●	●	
08	Negozio-nitxo, merkatu eta mugikortasun-segmentu berriak hautematea eta garatzea	●		

Oharra: EA: Enpresa-aukera TE: Trantsizio Ekologikoa TD: Trantsizio Digitala

4. GAITASUN TEKNOLOGIKOAK

Propultsio eta energia efizientziako sistemak	Kudeaketa termikoko eta energetikoko sistemak diseinatzea eta simulatzea Biltegitratze elektriko banatuko sistemak
Arintzea	Egitura diseinatzea eta material arinak hautatzea Material konposatu eta polimeriko berriak garatzea Lotura estrukturalak Estaldura bereziak
Elektronika inprimatua	Ibilgailu barruko osagaietan elektronika inprimatua integratzea Plastronika Konpositeetan txertatutako sentsorika Antenak Argiztapen sistema txertatuak
Logistika adimentsua	Lokalizazio teknologia: UWB, LoRaWAN NB IoT, etab. Ibilbideak optimizatzea Aktiboen trazabilitatea
Biltegitratzeko eta kargatzeko teknologiak	Bateriak Potenziaren elektronika Kargatzeko ekipoak eta sistemak diseinatzea Energia kudeaketa eta lotutako <i>softwarea</i>
Lagundutako sistemak	Sentsorizazioa eta simulazioa Eskidura eta balaztatze adimentsuko sistemak eta ibilgailu gidariaren interakzioa (HMI) Adimen artifiziala eta <i>Big Data</i> aplikatzea
Konektibitatea	Zibersegurtasun aplikatua Hiri-mugikortasun adimentsua Gidatze autonomorako komunikazio sistemak eta V2X Identifikazio digital bermatuko sistemak



ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA JASANGARRIA



1. ESKUALDEKO ESPEZIALIZAZIOA

Ezaugarriak

Lehen sektorea eta eraldaketa sektoreak batuta, Nafarroako BEGaren % 7,5 da. 2014-2019 aldian BEGa % 15 inguru handitu da, gainerako sektoreetako batezbestekoa baino pixka bat beherago egonda

Lehen sektorea eta eraldaketa sektoreak batuta Lehen sektorearen eta eraldaketaren artean, 28.700 lanpostu daude (eskualdeko lanpostuen % 9,2). Lehen sektoreak 1.129 milioi euroko ekoizpen balioa izan zuen 2019an, eta 15.604 ustiategi eta 12.836 langile biltzen zituen. Eraldaketa sektoreak 755 enpresa eta 15.873 langile zituen 2019an, eta produkzioa 4.536 milioi eurokoa zen

Eraldaketa sektoreak eskualdeko esportazioen % 11,8 baino gehiago hartzen du (1.196 M €-ko esportazioak). Esportazioak % 40 inguru handitu dira 2014 eta 2019 bitartean (Nafarroako esportazio guztien batez besteko hazkundearen gainetik)

Azpi-sektoreen arabera, landareen ekoizpena nabarmentzen da (fakturazioaren % 43). Horien artean, barazki izoztuen eta giro tenperaturakoen enpresek dute fakturazio agregatu handiena, baina IV. gamako enpresak eta izoztuen enpresak dira gehien handitzen direnak. Ondoren, haragi produktuak, olioak, ardoak, okintza produktuak eta esnekiak daude

Merkatu nitxo gisa, plater prestatuak (37) eta gourmet estrategia (142) duten enpresen kopuru handia nabarmentzen da

Balio-katea

Enpresak:

- Ekoizleak: Grupo AN koop.so., Orbalaiz koop.so., Timac AGRO,...
- Eraldatzaileak: Berlys Corporación Alimentaria, Ultracongelados Virto, Congelados de Navarra, Viscofan, Florette (Vega Mayor), Agotzaina, Industrias Alimentarias de Navarra, Inter Malta, Iberfruta Muerza, Harivasa 2000, Agrozumos, Elaborados Naturales, Grupo APEX, General Mills...
- Banatzaileak: Eroski, Grupo Uvesco...
- Industria lagungarria: Exkal, Talleres Urtasun, Smurfit kappa...

Jakintza entitateak: NUP, Nafarroako Unibertsitatea, CNTA, INTIA, CIMA, IdAB...

Laguntza entitateak: NAGRIFOOD, ALINAR, INTIA, UAGN, EHNE, UCAN...

Sortzen ari diren ekimenak

Startupak: Alimentación Sanygran, Cocuus, Nutrinsect, Nucaps, Nulab, Greentech, Nutrición 3g, MOA Foodtech, Innomy Biotech, Ingredalia...

Proiektuak: PROTEVEG (landare proteinaren ekoizpena), NUTRIBIOTA (elikagaien eta osagaien diseinu adimentsua), NUTRI+ (adinekoen nutrizioa hobetzeko), ALINFA (12 urtetik beherakoentzako elikadura osasungarria), BIOFOOD eta BIOVID (osagai hartituei bioteknologia aplikatzeko eta mahatsondoak kontrolatzeko), IRIS IAFOOD (elikagaien fabrikazioan kalitatea monitorizatu eta kontrolatzea), ALISSEC (elikagai eta osagai osasungarri eta jasangarrien diseinua ekonomia zirkularretik abiatuta)...

Nazioarteko lankidetzak

GEX Bionavarre

Foodtemic sarea

Partnership Smart Sensor Systems 4 agrifood

Partnership Traceability and *Big Data* (applications in agrifood)

Partnership Nutritional Ingredients

Partnership European Food Packaging Platform

EIT FOOD

ERRIN - Food in regions

VANGUARD Initiative

Bioeconomy Platform (BIC)

2. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2030 ikuspegia



Nafarroa Europako erreferentea da elikadura osasungarri eta jasangarrian, bereziki landare-elikaduran; kalitate handiko produktuak garatzen ditu, eta lurraldeko baliabide naturalak aprobetxatzen eta errespetatzen ditu.

FOKUA



- Landare-jatorriko produktu berriak
- Proteina alternatiboen garapena
- Ekoizpen ekologikoaren industrializazioa
- Azpiproduktuen balorizazioa

Joerak

Nekazaritzako elikagaien sektorean berrikuntzarako 4 palanka nagusi daude, eta horien artean konbinagarriak dira bereizketak sortzeko: jasangarritasuna eta zirkulartasuna, osasuna eta ongizatea, plazera eta praktikotasuna

Espainiarren % 45ek produktu osasungarriagoak eskatzen dituzte.
Gehitu egin dira "Clean Labels" izenekoak

Animalia jatorriko proteina gutxiago kontsumitzen dira, ustez hain osasungarria ez delako, jasangarritasunagatik edo animalien duintasunagatik. Ordezko proteina alternatibo berriak garatzen ari dira

Espainian, produktu ekologikoen kontsumoa % 20tik gora handitzen da urtean, eta hazkunde marjina handia du, beste herrialde batzuekin alderatuta

Hoztutako plater prestatuen, *Meal Kits*en eta janari etnikoaren kontsumoaren hazkunde handia (batez ere janari mexikarra eta asiarra eta prestatzeko prest dauden kit formatuan)

Gourmet produktuen salmentak % 6 handitu dira: ohiko produktuenak halako bi

Kuota oso txikia bada ere, *online* erosketek gora egiten jarraitzen dute etengabe (% 20)

Tokiko, sasoiko eta hurbileko produktuen kontsumoaren joera

Etiketikan kanpoko kontsumoa handitzen doa etxearen barnekoaren aurrean

Produktu berrien merkaturatze kopurua urtetik urtera handitzen ari da, eta ekologia eta osasuna ardatz duten merkaturatzeak nabarmentzen dira

Nazioarteko ikuspegia

Europako 'Farm to Fork' strategiaren helburua da elikagaiak ekoizteko sistema jasangarri bateranzko trantsizioa bizkortzea, lehen mailako ekoizpen prozesuak, fabrikazio eta banaketa prozesuak eta etxeetako elikagaien kontsumoa jasangarriak izan daitezen, eta, aldi berean, prebentzioz jardutea elikagaien galera saihesteko eta elikagaien xahuketa murrizteko (*Food Waste*)

Pestizida eta ongarri kimikoen arriskua murrizteko neurriak hartuko ditu Europako Batzordeak, 2030ean nekazaritza lurzoru organikoa % 25 izan dadila lortzeko helburuarekin

Batzordeak proposatuko du etiketa batzuk normalizatzea eta erabiltzea, produktuak jasangarritasun eta nutrizio irizpideei jarraikiz egin direla ziurtatzen dutenak

Europako Batzordearen Europa Horizonte finantzaketa programak trantsizio berdea eta digitala bizkortu nahi du. 6. klusterraren ikerketa programak 'Farm to Fork' strategiaren helburuak garatzen lagunduko du, eta pertsonen elikadura eta nutrizioa bermatuko ditu

Lotutako GJHak:



3. LAN-ILDOAK


	Lan-ildoak	EA	TE	TD
01	Landare-irtenbide berriak, komenigarriak, eskuragarriak eta erabilgarriak	●		
02	Landare-proteinaren eta beste proteina alternatibo batzuen garapena	●		
03	Azpiproduktuak eta hondakinak balorizatzea produktu berriak sortzeko, berdin azken produktua edo osagaiak izan	●	●	
04	Elikagai osasungarriak eta funtzionalak garatzea eta nutrizio pertsonalizatuan aurrerapenak egitea	●		
05	ekoizpen ekologikoa eta haren industrializazioa sustatzea nekazaritzako elikagaien enpresetan	●	●	
06	Balio erantsi handiko eta lurraldeari oso lotutako tokiko produktuaren kontsumoa eta ustiapena sustatzea	●	●	
07	Gutxi prozesatuta dauden eta tratamendu txikiagoa duten elikagaietara bideratzea	●	●	
08	Sektoreak baliabide naturalarekin duen konpromisoa: ur gutxiago kontsumitzea, ongarriak murriztea, fitosanitarioak		●	
09	Elikagaien balio bizitza luzatzea, elikagaiak alferrik ez galtzeko	●	●	
10	Doitasunezko nekazaritzaren garapena. Laboreak kudeatzeko sensorizazioa eta teledetekzioa	●	●	●
11	Elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatzeko teknologia berriak garatzea eta ezartzea	●		●
12	Online salmenta bideen bilakaera eta kontsumitzailearekiko lotura	●		●

Oharra: EA: Enpresa-aukera TE: Trantsizio Ekologikoa TD: Trantsizio Digitala

4. GAITASUN TEKNOLOGIKOAK

Lurren eta laboreen babesa	Estaldura laboreak, lurzoruaen agroekologia, fitopatologia, bio intsektizidak eta ongarriak Lurretan mikroorganismoak identifikatzeko teknologia omikoak
Doitasunezko nekazaritza	Aldagai agronomikoen sensorizazioa Adimen artifizialean oinarritutako nekazaritzako eredu iragarleak Teledetekzio datuen plataforma
Prozesatzeko eta kontserbatzeko teknologiak	Kontserbatzeko teknologia aurreratuak Prozesatzeko teknologia berritzaileak Gehigarririk gabeko kontserba
Elikagaien segurtasuna	Biosentsoreak Trazabilitate automatikoa Irudi teknologiak: hiperespektrala, UV, etab. Analisi teknika espezializatuak
Elikadura funtzionala eta pertsonalizatua	Mikrobiologia industriala: probiotikoak, prebiotikoak, osagai berriak Kontsumitzaileen eta eskaintzen arteko harremanetarako plataformak Nutrizio pertsonalizatua
Ontzi jasagarriak	Ontzi jangarriak Ontzi biodegradagarriak

ENERGIA BERDEAREN INDUSTRIA



1. ESKUALDEKO ESPEZIALIZAZIOA

Ezaugarriak

Sektorea oso garrantzitsua da: 110 enpresa baino gehiagoko sare industriala du, 6.400 lanpostu, 4.500M euroko fakturazioa eta eskualdeko BPGren % 5; gauzak horrela, hirugarren sektore garrantzitsuena da, automobilgintzaren eta elikaduraren atzetik. Gainera, eskualdeko bigarren sektore esportatzailea da, batez ere haize-sorgailuen eta horien osagaien fabrikazioan oinarritua

Nafarroa erreferentea da energia berriztagarrietan, 1994an energia eolikoaren industrian aurrera egiteko proiektu baten aldeko apustua egin, eta Erreniega mendian lehen parkea sortu zenetik

Industriaren zatirik handiena energia eolikoa da (*onshore* oso bideratuta), baina industria fotovoltaikoa ere garrantzitsua da

Balio osoko katea da, barnean hartzen dituen energia berriztagarria % 100 lantzen duen operadore handi bat (Acciona energía) eta bi OEM handi (Siemens-Gamesa eta Nordex-Acciona). Gainerako enpresak ETEak dira gehienbat, baina balio erantsi handia dute osagai elektroniko batzuetan. Hornitzaile gehienek osagai hauek erabiltzen dituzte: palak, kontrolak, errodamenduak eta transmisio kutxak

Nafarroa energia berriztagarrien munduko erreferente bihurtu da, batez ere energia eolikoari dagokionez. Nafarroako parke eolikoaren sareak 1 GW-ko edukiera instalatua du

Balio-katea

Enpresak:

- Sustatzaileak eta banatzaileak: Acciona energía, Enhol, Iberdrola, Gas natural...
- OEM: Siemens-Gamesa, Nordex-Acciona
- Osagaien diseinua eta fabrikazioa: Ingeteam, Sakana Scoop, Mekatar...
- Ingeniaritza eta zerbitzuak: Tetrace, Eseki, Tesicnor, Eosol, Altran...

Jakintza entitateak: CENIFER, NUP, CENER, AIN, NAITEC, LUREDERRA...

Laguntza entitateak: Enercluster...

Sortzen ari diren ekimenak

Startupak: Nabrawind Technology, Beeplanet...

Proiektuak: GERA (*blockchain* bidez biltegitratutako energia berriztagarria kudeatzeko teknologiak), ARALAR (autokontsumorako biltegitratzea); E-HIERA (ponpaketa hidrauliko bidez biltegitratzea)

Nazioarteko lankidetzak

Partnership Advanced manufacturing (ADMA) for Energy applications

Partnership hydrogen valleys

Wind Europe

Vanguard Initiative

Association for Cities and Regions for Sustainable Resources Management (ACR +)

Bioeconomy Platform (BIC)

2. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2030 ikuspegia



Nafarroa puntako eskualdea da European trantsizio energetikoari egindako ekarpen industrialagatik, energia berdeko irtenbide berritzaileak diseinatu, garatu eta ekoiztearen bidez.

FOKUA



- Energia adimentsuko sistemak
- Energia biltegitratzea
- Energia sortzeko teknologia berriak
- Haize-sorgailuen osagaiak birziklatzea

Joerak

Energia berriztagarriak aplikatzea mugikortasunean, industria prozesuetan eta eraikuntza jasangarrian

Energia eolikoak gora egiten jarraituko du datozen urteetan; zati handiena 'onshore'koa izanen da (urtero instalatutako potentziaren % 90 baino gehiago izaten jarraituko du), nahiz eta *offshore* instalazio berriak gehitzen ari diren (% 17ko hazkundea). Europa eta Txina dira instalazio eolikoaren merkatu handienak

Hauxe da joera maila orokorrean (eta European ere bai): ahalmen handiagoko proiektuak, potentzia nominal handiagoko haize-sorgailuak, pala luzeagoak eta dorre altuagoak

Energia ekoizpenaren ahalmena handitzeko irtenbideak berekin dakar energiaren hibridazioa (batez ere eolikoa eta eguzki energia fotovoltaikoa), gaur egun gutxiegi erabiltzen diren ebakuzio sistemak aprobeztatzeko aukera ematen baitu

